

|                                                                                       |                       |                   |
|---------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------|-------------------|
| <b>Irakasgaiaren izena</b>                                                            | <b>Kodea</b>          | <b>Ikasturtea</b> |
| Hezkuntzaren antropologia eta historia                                                | 151300                | 2024/2025         |
| <b>Titulazioa</b>                                                                     | <b>Maila</b>          | <b>Sehilekoa</b>  |
| Gradua Haur Hezkuntzan                                                                | 1                     | 2                 |
| <b>Irakasgai mota</b>                                                                 | <b>ECTS Kredituak</b> | <b>Hizkuntza</b>  |
| Oinarrizkoa                                                                           | 6                     | Euskara           |
| <b>Irakaslea(k)</b>                                                                   |                       |                   |
| Ainhua Bilbao Martínez ( <a href="mailto:abilbao@bam.edu.es">abilbao@bam.edu.es</a> ) |                       |                   |

|                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                     |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>Justifikazioa</b>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                |
| Hezkuntzaren antropologia eta historia ikasgaia <i>Gizartea, familia eta eskola</i> jakintzagaiaren barruan eskaintzen da. Ikasgai honek bide emango dio ikasleari bilakaera soziokulturalari buruzko interpretazio antropologikoak ezagutzeko, eta orobat, hezkuntza-arloan historia hurbilean gertatutako aldaketei buruzkoa. Ikasgaiak xede du hezkuntzaren bilakaeran izandako eredu antropologikoak identifikatu eta hezkuntza prozesuko oinarri antropologikoa nagusiak ulertu, kulturaren eta hezkuntzaren arteko erlazioak antzeman, hezkuntzaren bilakaera ezagutu (bereziki euskal hezkuntza sistemarena), eta gizartearen izaera anizkoitzaren aurrean jarrera irekia sendotu, fenomeno desberdinak ulertuz: migrazioak, generoa, aldaketa soziokulturalak, hizkuntzen bilakaera, familia eta gizatalde eredu ugariak... |
| Haur Hezkuntzan Graduatua izango denaren profilari dagokionez, ikasgai honen bidez lortu nahi duguna da hezkuntzaren errealitatea bere osotasunean aztertuz eta hezkuntzan eragiten duten faktoreek duten pisu antropologikoa ulertuz, lan mundura heltzen denean, ikasleak bere lanbidean izango dituen arazo eta erronken aurrean erantzun zuzen eta egokiak emateko irizpideak izan eta aplikatzeko gai izatea, bizikidetzaren aldeko ekintzaile izan dadin.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                     |

|                            |
|----------------------------|
| <b>Aurrebaldintzak</b>     |
| Ez dago aurrebaldintzarik. |

## Gaitasunak

### Gaitasun orokorrak

- C.G.5. TALDE-LANA. Lehenengo menderatze maila: Taldeko zereginetan aktiboki parte hartzea eta konfiantza, zintzotasuna eta elkarlana sustatzea.

### Berariazko gaitasunak

C.E.1.7. Gizartean zuzentasuna, berdintasuna (gizon eta emakumeen artekoa, kultura artekoa...), giza eskubideak eta jasangarritasuna sustatzeko estrategiak diseinatu.



## Garapen Iraunkorrerako Helburuak eta Laudato si' Helburuak irakasgaian



### GIH 5 Genero berdintasuna

1. Ikasleak ulertzen ditu genero, genero-berdintasun eta generoagatiko diskriminazio kontzeptuak, ezagutzen ditu generoarekin lotuta diskriminazioak, indarkeriak eta desberdintasunak hartzen dituzten askotariko formak (esate baterako, jarduera kaltegarriak, hala nola emakumeen genitalen mutilazioa, ohoreagatiko hilketak, haurren ezkontzak, enplegu-aukera eta ordain desberdinak, hizkuntzaren eraketa, genero-rol tradizionalak, hondamendi naturalen ondorioak generoarekin lotuta), eta ulertzen ditu genero-berdintasunik ezaren egungo arrazoiak eta arrazoi historikoak.



### LSH 4 Hezkuntza ekologikoa

Curriculum eta haren garapena ekologia integralaren espirituan birpentsatzea eta berriro diseinatzea, kontzientzia ekologikoa eta ekintza eraldatzailea sustatzeko.

## Edukiak

1. Gizakiaren izate soziala eta kulturala, hezigarritasuna. Hezkuntza prozesu soziokulturala. Hezkuntza gizakiaren izate kulturalarekin bat. Aniztasun soziala, erlijiosoa, hizkuntzazkoa... Kultur aniztasuna eta kulturartekotasuna.
2. Hezkuntzaren bilakaera: historian zehar izandako hezkuntza eredu antropologiko desberdinak eta hezkuntza eredu eta sistema nagusien ezaugarriak.
3. Esparru pedagogikoa, hezkuntzaren antropologia eta hezkuntza praxiaren hobekuntza.
4. Hezkuntza XXI mendean: ezagutzaren gizartea, mundu globalizatua / joera globalak, euskal gizartearen eta euskal hezkuntza sistemaren berezitasunak (oinarri juridikoak, bilakaera, sareak, ereduak...). Etorkizunerako hezkuntzaren erronkak.

Aipatutako edukiak bi bloketan banatuko ditugu:

## Gizakia, hezkuntzaren oinarri eta helburu

1. Hezkuntzaren helburua: erreprodukzioa edo eraldaketa?
2. Ikasteko gaitasuna, genetikoala ingurunearen eragina?
3. Aniztasunaren kudeaketa ikasgelan: ezberdin izateko aukera eta aukera berdintasuna hezkuntzan.
4. Gizarte ezberdinak, hezkuntza sistema desberdinak: eskola ereduaren kontrastea munduan zehar.
5. Hezkuntza eta haurren eskubideak.
6. Hezkuntzaren pentsalariak.
7. Hezkuntza eta Garapen Jasangarriko Helburuak (GJH).
8. Giza eskubideen trataera.

## Euskal hezkuntza-sistema gaur

1. Ikastetxeen sarea euskal hezkuntza sisteman: ikastetxe motak, Haur Hezkuntzako zentroen sailkapena eta eredu linguistikoak.
2. Euskal Autonomia Erkidegoaren Hezkuntza Legea: egitasmoa eta anteproiectua.
3. Hezkuntzaren pentsalarien azterak: metodologia tradizionalak eta metodologia berriak presentzia euskal ikastetxeetan.
4. IKTen erabilera eskolan: azterketa kritikoa.
5. Ikastetxearen erantzukizun soziala.

## Ikas-irakaskuntza estrategiak

Ikasgaian lortu behar diren konpetentziak honako estrategiak erabiliz landuko dira:

- **Ikasgaian landu behar diren gaiak **testuinguruan kokatzeko jarduerak**:** eztabaidak sortu, abiapuntu hartuta taldekideen esperientziak, testu analisiak edota ikus-entzunezko euskarriak. Errealitate desberdinak ikuspegi kritikoaz aztertu.
- **Gogoetarako jarduerak:** gaiak lantzean edo landu ondoren, hausnarketak bideratu galdera, zalantza eta aukerak planteatuz edota erantzunez.
- **Kontzeptualizazioa:** ikasgaian zehar planteatzen diren edukien inguruko ulermena lortzera eta eduki horien aplikazioan trebatzera bideratutako ariketak.
- **Jarduera praktikoa:** ikasgelan zein ikasgelatik kanpo egingo diren jarduerak aplikatuak (tailerrak, ariketen ebazpena, talde-lanak, eztabaidak...), gaien inguruko errealitateak aztertuz.
- **Ebaluazio jarduerak:** ikasgaiaren inguruan egindako lanari eta planteatutako erronkei buruzko ahozko aurkezpenak, berariazko gaitasunen zein orokorren lorpena neurtzeko programatutakoak.

## Kalifikazioa

Irakasgaiaren kalifikazio sisteman 2 osagai mota hartuko dira kontutan. Aurkeztutako gaitasun orokorraren lanketa bideratzeko, biak taldeka ekoiztuko dira:

- **Derrigorrezko egitekoak (2 PUNTU).** Talde lanaren erregulazioa eta oinarrizko irakurketen azterketa bideratzeko praktikak dira. Bi egingo ditugu eta bakoitzaren balioa puntu batekoa izango da.
- **Aurkezpenak (8 PUNTU).** Bi aurkezpen prestatu beharko dira, bat bloke bakoitzean:
  - Aurkeztutako lanek unibertsitate-ekoizpenei dagokien maila erakutsi beharko dute hizkuntza aldetik ere.
  - Aurkezpenen ebaluazioan aintzat hartuko diren irizpide eta adierazleak klasean aurkeztuak izango dira beraien ulermena eta jarraipena bideratzeko.
  - Aurreko irizpideek, banaka eta taldekako lana uztartuko dituzte.
  - Hobekuntzak egiteko aukera errazteko, bloke bien ebaluazioa mailakatua da:

| Blokea | PONDERAZIOA |
|--------|-------------|
| 1      | 3,5         |
| 2      | 4,5         |

### Adimen artifizialaren erabilera:

Ez dago baimenduta adimen artifizialeko tresnak (AA) edo horien bidez sortutako edukiak erabiltzea.

Ezin da lan akademikorik kopiatu, plagiatu edo sortu Adimen Artifizialeko tresna baten bidez. Horrelako iruzurrezko praktikak egitea falta astuntzat hartuko da, Ikasleen Araudiaren 75. artikuluen arabera, (Deustuko Unibertsitateko Aldizkari Ofiziala, 81. zk., 2023ko ekaina).

### OHARRAK:

- Aurreko osagai guztiak ALUDen eskuragarria dagoen lan egutegian kronologikoki kokaturik daude.
- **Aurkeztutako kalifikazio sistemak klaserako etorrera jarraitua exijitzen du. Hutsegiteak justifikaturik egon behar dira. Etorreran baldintza betetzen ez duten ikasleek, aparteko kalifikazio sistema baten arabera egin beharko dute lan, beraien egoeraren arabera.**
- Ikasgaia gainditzeko, ezinbestekoa izango da banakako atala gaindituta izatea.
- Ezohiko deialdirako baldintza espezifikoak, lehenengoan hautemandako etekinaren arabera zehaztuak izango dira, horren oinarriak ziurtatuz.

## Dokumentazioa

Ikasgaia aurrera ateratzeko ikasleak eskuratuko duen dokumentazioa ondokoa da:

- Ikasgaiaren programa.
- Ikasleak eginkizun dituen ariketa edo lan bakoitzerako fitxak, kasuan kasurako argibideekin: helburuak, gidoia, orientabideak, jarraibideak....
- Eduki multzo bakoitzerako oinarrizko dokumentuak edukion lanketa hasterakoan banatuko direnak: testuak, ikus-entzunezkoak, estekak edota bibliografia.
- Lanak egiteko eta aurkezteko arauak eta egutegia.

Aurreko dokumentazioa ALUDen antolaturik egongo da ikasleek eskuragarri izan dezaten.